

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko urriaren 30a. IX. urtea. 2.424. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



LAMONABEZ

→ **130 perretxiko sailkatu dituzte, Leitzan.** Herenegun bukatu zen Leitzako Mikologialdia. Jardunaldietako egun nagusia zen eta hainbat ekitaldi izan zituzten, tartean azoka. Bertan jendeak eramandako 130 perretxiko mota erakutsi ahal izan zituzten eta horietako bat oso berezia, gainera, Goringoa, ez baita asko ateratzen inguru hauetan. Antolatzaileak oso gustura daude aurtengo edizioak emandakoarekin. ◊4

**Pedro Tolosa** Merkataria

## «Gertukoa eta atsegina izan behar du herriko merkataritzak»

Tolosako urteko merkatari atseginenaren saria jaso du Pedro Tolosak; Tolosan denda ugari eta kalitadedunak daudela nabarmendu du ◊3

## Gipuzkoako pentsiodunen topaketak 544 pertsona bildu ditu

Harizpe pentsiodunen elkartearen 25. urteurrena dela eta antolatu dute eguna, Tolosan ◊2

## Euskal Herriko finalerako sailkatu dira Otaegi eta Otaño

Joseba Otaegi zizurkildarra eta Unai Otaño ibartarra Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finalean ariko diren sei aizkolarien artean daude ◊7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO hitza info

Hitzaren harpidedunentzat

**30 €**

Udazken honetan  
jantzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behea





550 lagun inguru elkartu ziren Zerkausiko bazkarian. KLUSK

## Gipuzkoako pentsiodunen topaketak arrakasta handia izan du Tolosan

Harizpe elkartearen 25. urteurrera medio, eurek antolatatu dute aurten ibilaldia; 550 lagun inguru elkartu dira

### Itzea Urkizu

Eguraldia lagun zutela, arrakasta izan zuen, pasa den igandean Tolosan ospatu zuten Gipuzkoako pentsiodunen ibilaldia. Herrialdeko pentsiodunak elkar ezagutu eta jai egun bat elkarrekin pasatzeko helburuz antolatzen

du martxa, urtero, pentsiodunen elkarte batek.

Tolosako Harizpe jubilatutako elkartearen izan da, aurten, martxa antolatzearen ardura. 25 urte bete ditu aurten elkarteak, eta aurrez aste osorako antolatatu zituzten jarduerak borobiltzeko bidea izan da ibilaldiarena.

Angel Martinezek, Harizpe elkartearen lehendakariak «balorazio ona» egin du: «Eguraldia lagun izan genuen, eta guztia normaltasun osoz atera zitzaigun, espero bezala».

Horrela beraz, pasa den asteko aurkezpenean zehaztutako ibilbi-

dea burutu zuten, 544 pentsiodunek; Trianguloa plazatik abiatuta, bide lauetan barrena ibili ziren, eta Amaroako aldaparen zailtasuna erraz gainditu zuten betaratutako 136 patruiletako kideek.

Parte hartzaile guztiek, beraz, ibilbidea osatu zuten, eta ez zen ezbehar larririk suertatu, Martinezek azaldu duenez: «Bi lagun artatu zituzten, baina ez zen ezer larria izan, eta gero bazkaltzera ere etorri zirenen».

### Lagunartez gozatzu

Zortzi kilometro inguruko ibilbidea amaitu eta gero, Zerkausian egin zuten bazkari legea.

550 parte hartzaileez gain, Ibai Iriarte Tolosako alkatea ere eurenkin izan zen egun osoan zehar, eta bazkari amaieran oroigarriak banatu zituzten, Angel Martinezek azaldu duenez.

Besteak beste, Harizpe jubilatutako elkarteak lau parte hartzaile helduenak saritu nahi izan zituen elkarteak; bi emakumek eta bi gizonek jaso zuten oparia alkatearen eskutik, horrela. Modu honetara, iluntzeko 19:00ak arte luzatu zen bazkalondoko jai giroa Zerkausian, Iñigo Perurena musikariaren eskutik.



Harizpeko lau parte hartzaile helduenak saritu zituzten. KLUSK



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## IKT asteak 200 parte hartzailetik gora bildu ditu

Dendariak, enpresariak nahiz enpresa munduko langileak aritu dira, besteak beste, ikastaroetan

### I. Urkizu

Tolosaldea Garatzenek antolatutako IKT astearen harira, 200 lagun inguru aritu dira hainbat ikastarotan.

Antolatzaileek balorazio ona egin dute, eta Euskaltel Fundazioak utzitako autobuseko ikasgela mugikorrean, Tolosako kultur etxean nahiz Tolosako KZ Gunean antolatutako tailerrek jende gehien erakarri dutela na-

barmendu dute. Mondragon Unibertsitateko ikerlari eta irakasleek eskaintako hitzaldiek ere interesa piztu dutela azaldu dute; bereziki, *Lern by doing* (*Eginez ikasi*) izeneko ikastaroak harrera ona izan duenak. Tolosaldeko enpresari eta dendariak hainbat sare sozialen erabilera hizpide izan dute, eta euren negozioa sustatzeko hainbat bide ezagutu dituzte.

Parte hartzaileen %80a eskualdekoa izan dela nabarmendu du Tolosaldea Garatzenek, eta adinari dagokionez, berriz, oreka handia izan da jardunaldietan: «Adin guztietako pertsonen interesa piztu du Tolosaldek IKT asteak».

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Izena eman daiteke Gure Kaiolaren babarrun lehiaketan

Hogei parte hartzaileen muga jarri dute elkarteak kideek, hogeitaseigarren lehiaketarako

### I. Urkizu

Azaroaren 9ra bitarte, Gure Kaiola elkarteak antolatzen duen babarrunaren gastronomia lehiaketan izena emateko aukera izango da.

Tolosako Babarrun Astearren barruan hogeitaseigarren aldiz antolatuko du elkarteak, aurten, lehiaketa. Datorren azaroaren 18an izango da, eta 19:30etik 21:00etara izena eman daiteke elkartearen, azariaren 9ra bitarte.

Halaber, [aiglesias@hirukide.org](mailto:aiglesias@hirukide.org) helbide elektronikora idatzita, nahiz 661 05 60 80 edo 607 67 27 09 telefonoetara deituta ere eman daiteke izena.

Elkarteak arduradunek, gehienez ere, 20 lehiakide izatea erabaki dute. Hau dela eta, izen-emate epearen barruan muga hau gainditzen badute, zozketa egingo dute zerrendako kide guztien artean; datorren azaroaren 12an izango da zozketa, 20:00etan, Gure Kaiolaren egoitzan bertan.

Azkenik, aipatzekoa da, azaroaren 18an bertan bazkaltzera joateko txartelak azaroaren 5etik aurrera eskuragarri jarriko dituztela, 19:30etik 21:00ra, elkartearen bertan. 607 67 27 09ra deituta ere eskatzeko aukera izango da, 24 euroren truke.

## → Laburrak

### ↓ Iragarki laburrak

#### LAN ESKAERAK

**Harakina.** Harategietan biltegitik ekartzen den ganadua zatitzeko, harakinak bere burua eskaintzen du. Interesa duen edonork, dei dezala 635 74 15 64 telefono zenbakira.

#### Herriko hildakoen alde meza, ostiralean

**ERLUJIOA** › Datorren azaroaren 2an, ostirala, meza ospatuko dute San Blas hilerriko kaperan, aurten herrian zendu diren guztien alde. Ekitaldia 11:00etan hasiko da.

#### 'Lo imposible' ikusteko sarreraren salmenta

**KULTURA** › *Lo imposible* filmak datorren igandean eta astelehenean izan dezakeen arrakasta aurreikusiz, sarreraren salmenta arautu dute. Horrela, ostegun eta ostiralean 16:30etik aurrera bonodunei sarrerak banatuko dizkiete, eta larunbatean, 12:00etatik aurrera, sarrera arruntak erosteko aukera izango da.

## Pedro Tolosa ◊ Merkataria

Tolosarrekin urteko merkataria atseginena izendatu dute Pedro Tolosa euren bozkekin; Tolosak duen merkataritza goraiatu du.

# «Merkatariontzat ez dago atsegina zarela esatea baino handiagorik»

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Lehen aldiz Tolosako urteko merkataria atseginena herritarren edo bezeroen botoek erabaki dute. Ia 6.000 bozka jaso dituzte, eta Berdura plazako Kiara bitxitegiko Pedro Tolosa izan da gehien errepikatu den izena. Pozik dago aitortpenarekin, eta bere aldeko botoa eman duten guztiak eskertu ditu.

### Nola sentitzen zara sari hau jasotzean?

Oso gustura nago. Nire ustez merkataria batentzat ez dago sari handiagorik, eta horregatik, nire aldeko bozka eman duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Lagun batek utzi zidan liburu batean irakurri nuen esaerak zera zion, «denda bat baduzu ikas ezazu

irribarre egiten». Horixe da kontua, dendaria bazara jatorra eta atsegina izan behar duzu, derri-  
gor.

### Nolakoa behar du izan Tolosa bezalako herri bateko dendariak?

Herrietako merkataritzak bi ezaugarri ditu. Bata gertukotasuna da, eta bestea atsegina izatea. Ez duzu urrutira joan beharrik, edozer dela behar duzuna, topatu ahal duzu herrian bertan. Hortik aurrera, bezeroak erabakiko du zure dendara joan nahi duen ala ez, ematen diozun tratua arabera. Zerbitzua ematen badiuzu, baina tratua edo jokaera ez bada oso atsegina ez da joango. Hori dela eta, atsegina zarela esatea, niretzat oso garrantzitsua da.

### Merkatarien familia da zurea.

Dendarien seme eta iloba naiz, be-



Iker Galartza, Pedro Tolosa eta bere lagun Murtxe Abasolo, ostiraleko galan. ir.

raz, eurengeatik ikasi dudala esan dezaket. Sari edo aitortpen honek lan ona egiten ari naizela adierazteaz gain, eurengeatik ondo ikasi nuela ere esan nahi du.

### Espero al zenuen herritarrek zu aukeratzeko?

Ez. Hasiera batean, gainera, ez nuen sarirako aukeratzeko erabakiko du zure dendara joan nahi duen ala ez, ematen diozun tratua arabera. Zerbitzua ematen badiuzu, baina tratua edo jokaera ez bada oso atsegina ez da joango. Hori dela eta, atsegina zarela esatea, niretzat oso garrantzitsua da.

### Zer du Tolosako merkataritzak hain berezia izateko?

Tolosak duen biztanleko komertzio kopurua Europako altuenen artean dago. Aniztasun handia dugu. Tolosarra bazara, bertan dugun merkataritzak ez duela ezer berezirik pentsa dezakezu, baina kanpotik etortzen direnak harrিতa geratzen dira hainbeste denda eta aniztasun ikustean. Kalitatezko denda ugari ditugu. Merkatal gune handi baten modukoa da Tolosa.

### Zergatik da onuragarria tolosarrekin Tolosan bertan egitea euren erosketarako?

Batetik, denetarik dugulako. Bestetik, bereziki bizi ditugun garai zailetan batak besteari laguntzea beharrezkoa da. Merkatal gune

handietan erosten baduzu, ez dakizu zure dirua nora doan, baina, aldiz, herrian erosten baduzu, merkataritza bizirik mantentzeko laguntzen ari zara. Kontuan izan, Tolosak 18.000 biztanle dituela, eta horietatik 1.500 inguru bizi dira merkataritza.

### Zein da gaur egungo Tolosako merkataritzaren egoera?

Garai hobek izan ditugula ez dago zalantzarik. Badira herritarrek erosi ezin dutenak, eta erosi ahal dutenek beldurra dute ikusten duten egoerarengatik, eta entzuten dutenarengatik. Bestalde, ezin esan daiteke krisiarengatik denda asko itxi direnik. Itxi dira, baina ez kopuru oso handian.

## Irudia ◊ Tolosa



# MERKATARI ATSEGINENA SARITZEKO EKITALDIA, BIKAINA

Tolosa&Co Tolosako merkatarien elkarteak ostiralean antolatutako gala berezia, atsegina eta alai izan zen. Leidor aretoa bete egin zen, eta bertaratutako zirenek primeran igarotzen zuten. Iker Galartzak bikain gidatu zuen ekimena, eta bere adiskideekin batera sketch dibertigarriak eskaini eta pailazo jantziarekin ikusteak jolasean

eta txaloka jartzeaz gain, zuzenean abesten ere ausartzen Elene Arandiarekin batera. Azken honek ederki erakutsi zuen ahots polita eta indartsua duela, eta baita Tolosako Otsoteak ere. Dantzan Udaberri taldekoak eta Tolosako kultur etxeko lantegikoak aritu ziren, eta hauek ere ikuskizun polita eskaini zuten. Eta honi guz-

tiari doinua jartzeaz Juanxo Zeberio arduratu zen, ikuskizuna borobilduz. Ekitaldian merkataria atseginenari saria eman zioten Kiara bitxitegiko Pedro Tolosari. Merkatarien bezeroengandik jasotako ia 6.000 boto bildu zituzten, eta horien guztien artean, Mari Karmen Zubeldiak irabazi zuen bi lagunentzako afaria. ir.



**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>LEHEN MAILAKO LAU T<sup>ERDIKO</sup> TXAPELKETA</b>	
Olaizola II.a	22
Bengoetxea VI.a	13

**BIGARREN MAILAKO LAU**

<b>T<sup>ERDIKO</sup> TXAPELKETA</b>	
<b>Olazabal-Elezkano II.a</b>	22-19
Lemuno-Jaunarena	16-22

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**

<b>Kadete banaka</b>	
Arrasate 2-Aurrera Saiaz	18-16

**Kadete binaka**

Lapke-Aurrera Saiaz 1	7-22
Intxurre-Aurrera Saiaz 2	12-22

**Jubenil banaka**

Aurrera Saiaz 1-Hernani	22-10
Aur. Saiaz 2-Zazpi Iturri	22-14

**Jubenil binaka lehen maila**

Azkoitia-Aurrera Saiaz 1	22-12
Tartaloetxe-Aur. Saiaz 2	22-16
Goierri-Aurrera Saiaz 3	22-10
Zazpi Iturri-Oiartzun	19-22

**Jubenil binaka bigarren maila**

Aurrera Saiaz 1-Azkoitia	22-12
Beloki-Aurrera Saiaz 2	5-22

**Senior banaka**

Aur. Saiaz 2-Hernani 2	22-11
------------------------	-------

**Senior binaka 3. maila**

Iparralde 2-Aur. Saiaz 3	22-13
--------------------------	-------

**Senior binaka 2. maila**

Eple-Aurrera Saiaz 1	6-22
Aurrera Saiaz 2-Usurbil	22-9

**Senior binaka 1. maila**

Azkoitia-Aurrera Saiaz 1	22-12
Aurrera Saiaz 2-Igeldo	14-22

**Senior ohorezko maila**

Zazpi Iturri-Aur. Saiaz 1	22-8
Aur. Saiaz 2-Soraluze	22-10

**ARETO FUTBOLA**

<b>HIRUGARREN MAILA</b>	
<b>6. jardunaldia</b>	
<b>Ibarra-Tolosala Hirukide</b>	4-2
Soloarte-Egintza	5-3
Mallabia-Laskorain	3-3

**Sailkapena**

<b>1. Ibarra</b>	18 p
2. Bilbo	16 p
3. Goierri	13 p
4. Soloarte	12 p
<b>5. Tolosala Hirukide</b>	11 p
<b>10. Laskorain</b>	7 p
<b>11. Egintza</b>	7 p

**FUTBOLA**

<b>ERREGIONAL OHOREZKOA</b>	
<b>Zazpigarren jardunaldia</b>	
<b>Tolosa CF-Trintxerpe</b>	3-1

**Sailkapena**

1. Hernani	21 p
2. Tolosa	14 p
3. Touring	13 p

**AIZKORA**

<b>EUSKAL HERRIKO LEHEN MAILAKO TXAPELKETA</b>	
<b>Finalurrekoa</b>	

1. Floren Nazabal	15:13
2. Aitzol Atutxa	17:34
3. Joseba Otaegi	17:47
4. Iñaki Azurmendi	18:09
5. Unai Otaño	18:18
6. J.M. Olasagasti	18:38
7. Jon Rekondo	19:10
8. Jesus Mari Mujika	19:15

**SASKIBALOA**

<b>Maila nagusia</b>	
<b>Bosgarren jardunaldia</b>	
<b>Bide Bide Donosti</b>	66
Lizuan.com ISB	57

1. Tabirako Baque	4-1
2. Mondragon Unib.	4-1
3. Sekyes	4-1
4. Lizuan.com ISB	4-1
5. Bide Bide Donosti	3-2

# Ibarrak irabazi dio Tolosala Hirukideri derbia, hasieran 0-2 galtzen hasi arren

Ibartarrek markagailuari buelta eman diote eta 4-2koa lortu dute; liderrak dira partida guztiak irabazita

**Imanol Garcia Landa**

Ibarra eta Tolosala Hirukideren arteko derbia ibartarrentzat izan zen. 4-2 irabazi zioten Tolosako taldeari eta lider jarraitzen dute, sei partidetatik seiak irabazita. Tolosalako oso denboraldi hasiera ona egiten ari dira, eta Ibarraren aurka galdu arren, itxura ona eman zuten. 11 puntu eskuratu dituzte eta sailkapenean bosgarren postuan daude.

Markagailuan aurretik jarri ziren tolosarrak, 0-2koa lortuaz lehen zatian. Tolosala Hirukide taldeko Kike Mokoroa entrenatzaileak garbi zuten nola jokatu behar zioten Ibarri: «Ibarra areto futbolearen erreferentzi bat da, eta ohikoena da Ibarra jokatzera joaten diren taldeak atzean gertzea, ahalik eta gol gutxien jasotzeko. Nik argi nuen lehiatzena joan behar genuela, hau da, presionatzen eta beraiek lekuz kanpo uztera». Mokoroak gaineratu duenez, «gero presioa eta erdialdean jokatzeari tartekatuta genituen, fisikoki gehiago errekupepatzeko».

Pablo Zubelzu Ibarra entrenatzaileak hitz onak izan ditu To-

losalakoentzat: «Bi edo hiru aldiz ikusi ditut eta sentazio ona jasodut, fisikoki ondo daude. Partidan segituan egin zizkiguten bigol. Guri partidan sartzea gehiagokostatu zitzaigun. Ez genuen eman gure berezko maila, pixka bat baxuago aritu ginen». Ibarra-koek bost partida jarraian irabazita zeuzkaten derbi hori jokatu aurretik eta horrek jokalariententsioa pixka bat jaistea eragin zezakeela esan du Zubelzuk.

Partidaren lehen zatia amaitu baino zazpi bat minutu lehenago sartu zuen lehenengo gola Ibarrrak. «Gol horrekin partidan sartu ginen», dio Zubelzuk, eta hortik aurrera partidari buelta emateko aukera izango zutela ikusi zuen entrenatzaile ibartarrek.

Bigarren zatian binakakoa lortu zuen Ibarra, zazpi minutura. Zubelzuk azaldu duenez, «binakakoarekin, beraiek ere aukerak izan zituzten golak egiteko, baina fisikoki nekatuta zeuden, sei jokalarierabiltzen ari baitziren. 3-2koa lortu genuenean partida irabazita genuela ikusi nuen, beraiek fisikoki eta psikologikoki jaitzi egin baitziren».

Mokoroak esan duenez, «bigarren zatian golak egiteko aukerak izan genituen, baina guk ez genituela sartu izan zen ezberdintasuna». Lau minuturen faltan, Tolosalako jokalaririk bat kanporatu egin zuen epaileak eta jokalaririk bat gutxiagorekin azkenean beste gol bat sartu zuten ibartarrek.

Mokoroak dioenez, «fisikoki ondo gaude eta Ibarraren aurka horrela prestatu behar genuen partida, beste modurik ez genuen ikus-ten». Tolosalako entrenatzailea oso gustura dago denboraldiarekin, hirugarren mailan lehen aldiz parte hartzen ari baitira eta sailkapeneko bosgarren postuan daude: «Sei partidetatik bakarria galdu dugu, eta galdutakoa, Ibarraren aurka lehiatuz galdu genuen. Edozeinen kontra lehiatzeko aukerak ditugula erakusten du horrek. Hori bai, beti ehuneko ehuneko aritu behar gara, bestela edozeinen aurka galtzeko aukerak izango ditugu».

Ibarra datorren asteburuan konpromiso garrantzitsua du. Bigarren sailkatuaren aurka jokatuko dute, Bilboren kontra, etxetik kanpo. Zubelzuk esan duenez, «partida irabaziz gero, psikologikoki kolpea emango diegu ligako beste taldeei, bigarren sailkatuari bost puntu aterako dizkiogulako».

**Laskorain eta Egintza**

Bere aldetik, Tolosako Laskorain taldeak 3-3 egin zuen Mallabiaren aurka, etxetik kanpo. Puntu hori eskuratu ondoren, hamargarren postuan geratu da sailkapenean, zazpi punturekin.

Egintza talde billabonatarrek 5-3 galdu zuen Soloarteren aurka, hauek ere etxetik kanpo. Emaizta horrekin 11. postuan daude, zazpi punturekin.

## Bengoetxeak ezin izan dio iazko txapelkunari irabazi

Leitzarrak 22-13 galdu du Olaizola II.aren aurka; Olazabalek eta Jaunarenak euren partidak irabazi dituzte

**I. Garcia Landa**

Oinatz Bengoetxea leitzarrak ezin izan zuen Lau t<sup>erdiko</sup> txapelketako ligaxkaren lehen puntua eskuratu. Aurrean izan zuen egungo txapelketa, Aimar Olaizola, eta ahaleginak egin arren ez zuen partida irabazterik izan. 22-13 galdu zuen leitzarrak.

Pilotari leitzarrentzat «partida ona» izan zen larunbatean Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatutakoa. «Aimarrek, partida mugitzen denean, izugarritzko maila

du. Bai fisikoki eta baita psikologikoki ere bizkorra da, eta partidan ere erakutsi du», azaldu du Bengoetxeak.

Lau t<sup>erdiko</sup>ko partiden hasieretan «paliza ikaragarria» izaten dela esan du leitzarrak eta une horietan hobeto jokatzen duenak gero partida irabazten duela esan du. «Aimarrek une garrantzitsuetan oso ongi jokatu du, gero nik baino gehiago aguantatu du eta horregatik irabazi du».

Partidaren gogortasunagatik arazo fisiko batzuk izan zituen leitzarrak, eta Olaizolak, nekatuta izan arren, pilota nahi zuen lekura eramatea lortu zuen. Une batez Bengoetxea markagailuan gerturatu zen, 10-8 lortuaz, baina ezin izan zuen berdinketa lortu: «Aimarren kontra dena perfektu egin behar da, eta partida jokatu

den erritmoan hori oso zaila da. Egia esan, aurkari oso zaila izan da».

Bengoetxeak hurrengo partida Xalaren aurka izango du asteburu honetan. Eta hurrengo asteburuan Arretxe II.a izango du aurkari. Bengoetxeak azaldu duenez, «banekien partidari zailena Aimaren aurka izango zela, eta oraingoz hala gertatu da. Orain bi partida gelditzen dira, eta biak irabazteko eta galtzeko aukera dute».

Arretxe II.ak Xalari irabazi dio ligaxkaren lehen partida, 22-12, eta beraz lehenengo puntua lortu du. Bengoetxeak Xalaren aurka duen partida oso garrantzitsua da, galduz gero aukera gutxi izango baititu finalerdietara sailkatzeko.

Atzo arratsaldean jokatu zuen

Barriola leitzarrak ligaxkako lehen partida, Gernikan, Berasaluzen VIII.aren aurka. Bere taldean ditu ere Martinez Irujo eta Retegi Bi. Martinez Irujok Retegi Biri irabazi dio eta beraz lehenengo puntua lortu du.

**Bigarren mailan, bitik bi**

Mikel Olazabalek bere bigarren puntua lortu du Lau t<sup>erdiko</sup> bigarren mailako txapelketan. Elezkano II.ari 22-13 irabazi zion Arrigorriagan (Bizkaia). Pilotolean ez zen nagusi izan aresoarra, baina sakez min handia egin zion Zaratamoko pilotari gazteari. Guzтира zortzi egin zizkion Olazabalek. Horrez gain, pilotari aresoarrak profesionaletan duen esgarmentua baliatu zuen bigarren puntua lortzeko.

Olazabal ligaxkako bere talde-

ko buru da orain, jokatutako bi partidetatik biak irabazi baititu. Rico IV.ak eta Elezkanok partida bana irabazi dituzte eta Apezetxeak biak galdu ditu. Olazabalek asteburu Rico IV.aren aurka jokatuko du.

Jon Jaunarenak bere lehen puntua lortu du ligaxkan, Lemunori 22-16 irabazi ondoren. Garaipe horrekin leitzarra bere taldeko hirugarren postuan dago. Lehen postuan Untoria dago bi garaipekin, eta bigarren goan Gorka puntu batekin. Azkeneko postuan Lemuno dago eta finalerdietara pasatzeko aukerarik ez du. Jaunarenak Untoriaren kontra jokatuko du ligaxkaren azken partida asteburu honetan. Hirugarren postuan izan arren, finalerdia jokatzeko aukerak ditu oraindik pilotari leitzarrak.

# Joseba Otaegi eta Unai Otaño sei aizkolari onenen artean sailkatu dira

Euskal Herriko txapelketako finala jokatu dute; Rekondo eta Mujika kanpoan geratu dira gutxiarik

**Imanol Garcia Landa**

Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finalean ariko diren sei aizkolarien artean bi eskualdekoak dira, Joseba Otaegi zizurkildarra eta Unai Otaño ibartarra. Kanporaketa Floren Nazabalek irabazi zuen, nagusitasunez, eta beste bost sailkatuen artean ez zen alde nabarmenik izan. Hain justu, zazpigarren egin zuen Jon Rekondo leitzarra 32 se-

gundora geratu zen finaletik kanpo eta zortzigarren egin zuen Jesus Mari Mujika ibartarrak, Rekondorengandik bost segundora amaitu zuen.

Otaegi hirugarren sailkatu zen eta Otaño bosgarren, eta biek nabarmendu dute kanporaketan izandako parekotasuna. Otaegik azaldu duenez, «estua izan da, eta maila handikoa, denborek erakusten dutenez. Enborrek laguntzen dute, baina Nazabal kenduta, beste denak minutu batean sartu ginen». Otañok gaineratu duenez, «ikusten zen Nazabal zegoela denen gainetik, eta gero borroka handia izango zela. Bost postu zeuden, eta zortzi edo bederatziz aizkolari aukerekin. Kanpoan geratu ziren lehenengo biak

minutu erdi batera geratu ziren».

Otaegik esan duenez, «hasi aurretik esaten zen finala garestia izango zela, eta hala suertatu da». Aizkolari guztiek bere denborak hobetu dituzte, eta Nazabalek gainera kanporaketako marka hobetu zuen, Anjel Arrospide leaburuarrak egindakoa hiru segundotan jaitziz. Otaegik zehaztu duenez, «egurrak zeresan handia du. Aizkolari berak egun berean eman dezake kanaerdiko bat ebatkitzen minutu bat eta 15 segundo eta gero, beste bat bi minutu eta erdian. Hiru minutuko okerra egiteko horrelako lan batean ez du ezer behar, egurra pixka bat gogortxoagoa izatea nahikoa da. Hori ikusten da, aizkolari denak hobetu edo okerrera joaten gare-

la». Otaegik bere burua hasieran ez zuen oso ondo ikusi: «Pixka bat presaka aritu nintzen, ebakitze-rakoan trakets ibili nintzen. Lana motza ez da, baina luzea ere ez. Gainera, badakizu postuak segundoko gutxiaren aldearekin izaten direla, eta presaka hasi nintzen. Gero bukaeran hobeto aritu nintzen». Otañok bere burua ondo ikusi zuen lan erdiak egin arte: «Gero pixka bat jaitzi egin nintzen. Lan erdiak arte hirugarren denbora onena markatu nuen, baina gero nekatuta sentitu nintzen».

**Bigarren postuaren bila**

Finala azaroaren 18an jokatu dute. Orduan kanporaketaren lan bikoitza egin beharko dute.

Otañok azaldu duenez, «kanporaketakoa lan esplosiboa izaten da. Finalean hasieran indarrez hasten zara, baina gero zure erritmoa hartu behar duzu, 40 minutuko lan batean ezin baituzu kanporaketan jardun zaren bezala aritu».

Finalean Otañok garbi ikusten du Nazabalentzat izango dela txapela, ez bada ezer berezirik gertatzen. «Gero besteen artean, ikusi beharko da zeinek duen egun ona; gorabehera asko izan daitezke», esan du ibartarrak. «Bigarren edo seigarren geratzea, egunaren arabera izan daiteke, ebakitze-rakoan ere asmatu egin behar da... ikusiko dugu zer gertatzen den».

Otaegirentzat ere Nazabal da finala irabazteko favoritoa. «Bigarren postua lortzen saiatuko naiz, eta aurretik lortutako emaitzek horretarako aukera ematen dute, baina lan luzea da eta ez dakit zer gertatuko den. Azurmendi egur handietan ondo aritzen da eta bigarren posturako nik baino aukera gehiago izango ditu».

# Danok Danenako neskak, oso ondo Espainiakoan

Susana Davila bigarren izan da 58 kiloko mailan, eta Goretti Amonarriz hirugarrena 63 kilokoan

**I. Garcia Landa**

Danok Danena halterofilia taldeko neskek emaitza oso onak lortu dituzte Madrilen jokatuako 15 urte aspiko Espainiako Txapelketan. Susana Davilak 58 kiloko mailan bigarren postua lortu zuen eta Goretti Amonarriz hirugarren postua eskuratu zuen 63 kiloko mailan.

Taldetik azaldu dutenez, «Susana Davilak ezusteko polita eman zuen. Nahiz eta arrankadan epaileek bi baliogabe eman, Susana ezzen kikildu eta barruan zuen guztia eman ondoren bigarren postua lortu zuen». Goretti

Amonarrizek postu hobia lortu zezakeen, baina taldetik azaldu dutenez, «batzutan gauzak ez dira ateratzen espero bezala».

Klubaren arteko Gipuzkoako txapelketan Danok Danenak lehenengo postua lortu zuen mutiletan. Lyam Edel, Ekaitz Kortajarena, Igor Sasiain, Asier Gallego, Francisco Gonzalez eta Paco Cruz izan ziren aritu ziren pultsulariak. Banakako sailkapen orokorrean lehen postua Igor Sasiainek eskuratu zuen. Txapelketa berean, taldeko lehen postua eskuratu zuten taldeko neskek, Goretti Amonarrizek eta Susana Davilak. Amonarriz izan zen irabazlea banakakoan. Biek hobetu zituzten beraien markak txapelketan.

**San Fausto Torneoa**

Basaurin (Bizkaia) jokatuako San Fausto Torneoan, hilaren 12an, Goretti Amonarrizek Euskadiko 15 urte aspiko markak



Susana Davila eta Goretti Amonarriz, Danok Danena taldeko pultsulariak. HITZA

hautsi zituen, 69 kiloko mailan, arrankadan 50 kilo altxatuz eta total olinpikoan 108 kilo altxatuz. Susana Davilak bere markak hobetu zituen, 58 kiloko mailan: arrankadan 40 kilo, bi denbora-

tan 55 kilo eta total olinpikoan 96 kilo.

Horrez gain, Klubaren Arteko Liga Nazionalen Danok Danena halterofilia taldea 5. postuan sailkatu da, lau jardunaldiak jokatu

ondoren. Txapelketa horretan 43 taldek parte hartu dute. Sailkatutako lehenengo 12 taldek Klubaren Arteko Espainiako Kopan parte hartuko dute. Txapelketa azaroaren 10ean egingo da Madril.

◉ **Hilberriak eta urteurrenak**

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**IÑAKI  
AROTEGI  
AGIRRETXE**



Herenegun hil zen, 65 urte zituela  
... gu sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak,  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz-adaxka gazteak...

**Maite zaitugu**

Villabonan, 2012ko urriaren 30a



GOIZA	OSTARTEAK
ARRATSALDEA	LAUNTUTA
BEROENA	16°
HOTZENA	11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIAK

■ **Abaltzisketa.** Azaroaren 4ean mendi irteera egingo dute. Abaltzisketako Udala, Logikali-ne eta Igaratzako Aralarko adis-kideak antolatu du. Larraitzetik atera, Igaratzan hamaiketako egin eta Abaltzisketako plazan bukatuko da ibilaldia. Ondoren, frontoian bazkaria izango da. 10 euro ordaindu beharko da, eta izena 646 28 42 42 (Jon) edo 676 929 660 (Juan Mari) deituz eman behar da.

■ **Ibarra.** Zero zabor, zer da? hitzaldia izango da, gaur, gaztelaniaz. Kultur etxean izango da, eta 19:00etan hasiko da. Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideek zero zabor filosofiaren nondik norakoak azalduko dituzte.

■ **Ibarra.** Ez ohiko osoko bilkura egingo dute Ibarra udalaren. 2013. urterako zergak eta tasa fiskalak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa izango da jorratuko duten gaia.

■ **Tolosa.** Ohiko osoko bilkura egingo dute Tolosako udalaren, 19:30ean.

### ERAKUSKETAK

■ **Alegia.** Jose Enrike Zeberio tolosarraren margolanak ikusi ahal dira Alegiako erretirodunen tabernan hilaren bukaerara arte.

■ **Orexa.** Kultur Hamabostaldiak irauten duen bitartean *Mundu batetik* erakusketa ikusi ahal da, udaletxeko ganbaran.

■ **Tolosa.** Tolosako Aranburu jauregiaren Box.A elkartearen *Pornografia* erakusketa azaroaren 9a bitartean, eta Medicus-mundi Gipuzkoak antolatutako *Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizatiarrenak* erakusketa ikusi ahal da azaroaren 3a arte.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa Etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairtzien erantzukizunik.

## Agurrak



### Zorionak!

Iñigo zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik. Ognahia zuretzat beti, nahiz urruti egon oraindik. Guraso eta senideak.



### Urte askoan!

**Hegoi Baraibar Goñi (Areso).**

Zorionak larunbateko partez!  
Zortzi muxu potolo,  
Berrobiko aiton-amonen partetik.

# Bidegoiango herritarrak oinak urratuz

Larunbatean 95 herritar elkartu ziren frontoian Dantza Zati Bat egitasmoan parte hartzeko

**Eneritz Maiz** Bidegoian

Eguraldia zela eta larunbat goizetik arratsaldera pasa zuten, Bidegoianen, Dantza Zati Bat egitasmoa. Hau da, Gazta Zati Bat filmaren soinu bandarekin dantza bat grabatu eta bideoklip erraldoi bat osatzea helburu duen ekimena. Herriko frontoian elkartu ziren, eta eurria eta 6 gradu baino ez egin arren, 95 herritar bildu ziren dantza egiteko.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, dantzaren hasieran, kartulina txuri, berde eta gorriak hainbat izkinatetik sartzen dira dantza, eta gero nahastu egiten dira, bukaeran ikurriña bat egiteko. «Bertan, denon artean dantza baten bidez, guztion elkarlana posible dela erakusten dugu», gaineratu dute.

Bidegoiango Udalak eskerrak eman nahi dizkie Ernio guraso elkarte eta Kukuri kultur taldeko kideei ekitaldi hau antolatzen



Dantza egin ostean, ikurriña marraztu zuten Bidegoiango 95 herritarrek. HITZA

laguntzeagatik, eta baita «herri-arte guztietan parte hartzeagatik eta gerria horrela mugitzeagatik ere».

Herritarrak oso gustura geratu ziren, eta aurrerantz ere herri-artei elkarlanean eta auzolanean jarraitzeko deia egin diete. Ekimenak antolatzen jarrai dezaten animatu ditu udalak.

Era berean, udalak YouTube

duen kontuan daude ikusgai berri-arte egin dituzten hainbat bideo. Larunbatean grabatu zuten dan-

■ **Bideoa.** Ikusi Dantza Zati Bat-eko bideoa honako QR kodea mugikorreko eskaneerretik pasata.



tzaren bideo ona eta azkartua ere zintzilikatuta daude. Bertan ikusi daitezke ere Bidaniako festetako Bidani vs Errezil Giza proba, kulturari eskainitako astea, eta oientzero, besteak beste.

Bilaketa egin ahal izateko *Bidegoian.udala* erabiltzailea edo *Bidegoian* izena jarri behar da. *Bidegoian.net* web orriko multimedialak atalean ere lotura dago.